

IV. kapitulua

Koordinazio eta lankidetzarako organoak

Capítulo IV

Órganos de colaboración y coordinación

1. ESTATUAREN ETA EUSKADIREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZARAKO ORGANOAK

Ekonomia Itunak, bai tributu-harremanen (2.art.) bai finantza-harremanen (48 art.) arloan, koordinazio eta lankidetzaz hartzen du printzipio nagusizat. Printzipio hori gauzatzeko organoak, bere III. Kapitulan jasotzen ditu: Batzordeak eta Arbitraje-batzordea. Jarraian organo horien osaera eta eginkizunak aztertuko ditugu.

1.a. Ekonomia Itunaren Batzorde Misto

Ekonomia Itunaren Batzorde Misto (61. artikulua), honela eratzen da: batetik, forualdun bakoitzeko ordezkari bana eta Eusko Jurlaritzako ordezkariak, aldundietako ordezkarien kopuru berean; eta, bestetik, Estatuko Administrazioako ordezkariak, aurrekoen kopuru osoaren zenbateko berean.

1. ORGANOS DE COORDINACIÓN Y COLABORACIÓN ENTRE EL ESTADO Y EL PAÍS VASCO

El Concierto Económico recoge como principio general, tanto en las relaciones tributarias (artículo 2) como en las financieras (artículo 48), la coordinación y colaboración con el Estado, dedicando el Capítulo III, de las Comisiones y Junta Arbitral del Concierto Económico, a los órganos encargados de hacer efectivo dicho principio, órganos cuya composición y funciones se analizarán a continuación.

1.a. Comisión Mixta del Concierto Económico

La Comisión Mixta del Concierto Económico (artículo 61), estará constituida, de una parte, por un representante de cada Diputación Foral y otros tantos del Gobierno Vasco, y de otra, por un número igual de representantes de la Administración del Estado. Sus acuerdos

Batzordekideek aho batez hartu behar dituzte erabakiak.

Eginkizun hauek izango ditu Batzorde Mistoak:

- a) Ekonomia Itunaren aldarazpenak erabakitzea.
- b) Aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazioari buruzko konpromisoak erabakitzea.
- c) Bosturteko bakoitzean kupoa ezartzeko metodologia erabakitzea.
- d) Arbitraje Batzordeko kideen izendapena eta araubidea erabakitzea, baita Batzordearen jardunbideari, biltzeko deialdiei, bilerei eta erabakiak hartzeko araubideari dagokiena ere.
- e) Zerga- eta finantza-gaiei buruz une bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartzea, Ekonomia Itunean ezarritakoa behar bezala aplikatu eta gara dadin.

1.b. Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea

Honako hauek osatuko dute Batzordea: Estatuko Administrazioaren lau ordezkariak, eta Autonomia Erkidegoaren beste lau ordezkariak (Eusko Jaurlaritzak izendatutakoak) lau horietatik hiru foru-aldundiek proposatuko dituzte, bakoitzak bana.

Eginkizun hauek izango ditu Batzordeak:

- a) Zergen arloko arauak Ekonomia Itunari egokitzeko zaizkion aztertzea, argitaratu aurretik. Horrela, euren araugintza-proiektuak elkarri erakusten dizkietenean, inork oharren bat egiten badu, Batzordean ordezkariak dituzten Erakunde eta Administrazioetako edozeinek Batzordearen bilerarako deialdia egin ahal izango du, proposatutako araudia Itunarekin bat datorren aztertzeko, araua argitaratu baino lehen, desadostasunik balego akordioa lor dezaten.
- b) Itunean aipatutako lotura-puntuak aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Ebazpen-proposamenari buruz inork oharren bat egiten badu, araugintza Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordearen

deberán adoptarse por unanimidad de todos sus miembros integrantes.

Las funciones que tiene atribuidas son las siguientes:

- a) Acordar las modificaciones del Concierto Económico.
- b) Acordar los compromisos de colaboración y coordinación en materia de estabilidad presupuestaria.
- c) Acordar la metodología para el señalamiento del cupo en cada quinquenio.
- d) Acordar el nombramiento y régimen de los componentes de la Junta Arbitral, así como lo referente a su funcionamiento, convocatoria, reuniones y adopción de acuerdos.
- e) Todos aquellos acuerdos que en materia tributaria y financiera resulten necesarios en cada momento para la correcta aplicación y desarrollo de lo previsto en el Concierto Económico.

1.b. Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa

Estará compuesta por cuatro representantes de la Administración del Estado y otros cuatro representantes de la Comunidad Autónoma designados por el Gobierno Vasco, tres de los cuales lo serán a propuesta de cada una de las respectivas Diputaciones Forales.

Esta Comisión tiene atribuidas las siguientes funciones:

- a) Evaluar la adecuación de la normativa tributaria al Concierto Económico con carácter previo a su publicación. Así, cuando en el intercambio de proyectos de disposiciones normativas se efectuasen observaciones, cualquiera de las Instituciones y Administraciones representadas podrá solicitar la reunión de esta Comisión para analizar la adecuación de la normativa propuesta al Concierto y propiciar, con anterioridad a su publicación, un acuerdo sobre las discrepancias existentes en relación al contenido de la normativa tributaria.
- b) Resolver las consultas que se planteen sobre la aplicación de los puntos de conexión contenidos en el Concierto. Caso de existir observaciones a las propuestas de resolución, se convocará la Comisión de Coordinación y

bilerarako deia egingo da berriz, eta batzorde horrek akordiorik lortzen ez badu, Arbitraje Batzordeari helaraziko zaio.

c) Ordainarazpenaren eta ikuskapenaren eskumen-gaien inguruan planteatzen diren oharren gainean ebazpena ematea.

d) Egoki irizten diren azterlanak egitea araubide autonomikoa eta Estatuko marko fiskala zuzen uztartzeko, egituraren eta eginkizunen esparruan.

e) Administrazio eskudunei euren jardunak elkarri egokitzeko irizpideak, planak eta informatikako programak eskaintzea, eta lankidetzaren eta informazio-trukearen printzipioa benetan gauza dadin erabili behar diren tresnak, bitartekoak, prozedurak edo metodoak antolatzea eta adostea.

f) Ikuskapen-gaietan Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean sortutako auziak edo arazoak aztertzea, baita zergen ondoretarako egindako balorazioen inguruko arazoak ere.

g) Txostenak egitea Ogasun Ministerioari, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako ogasun-sailei eta Arbitraje Batzordeari, hala eskatuz gero.

h) Ekonomia Ituna aplikatzearekin eta betearaztearekin zerikusia duten beste eginkizun guztiak.

1.c. Arbitraje Batzordea

Itunak Batzorde horren osaera, eginkizunak eta erabaki-eremua zehazten ditu, 65., 66. eta 67. artikuluetan.

Arbitraje Batzordea osatuko duten hiru kideak zenbait adituren artean hautatu dituzte; aditu horiek hamabost urte baino gehiagoko eskarmentua izango dute zergen edo ogasunaren arloan. Horien izendapena Ogasun Ministroak eta Ogasun eta Finantzaketako Sailburuak formalizatuko dute; sei urterako izendatuko dira.

Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo horien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari

Evaluación Normativa, que, de no llegar a un acuerdo, la trasladará a la Junta Arbitral.

c) Resolver sobre las observaciones que se planteen relativas a las cuestiones competenciales de exacción e inspección.

d) Realizar los estudios que estimen procedentes para una adecuada articulación estructural y funcional del régimen autonómico con el marco fiscal estatal.

e) Facilitar a las Administraciones competentes criterios de actuación uniforme, planes y programas de informática y articular y acordar los instrumentos, medios, procedimientos o métodos para la materialización efectiva del principio de colaboración y del intercambio de información.

f) Analizar los supuestos o cuestiones que se han planteado en materia de inspección entre las Administraciones del Estado y las respectivas Diputaciones Forales, así como los problemas de valoración a efectos tributarios.

g) Emitir los informes que sean solicitados por el Ministerio de Hacienda, los distintos Departamentos de Hacienda del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales y la Junta Arbitral.

h) Cualquier otra relacionada con la aplicación y ejecución del Concierto Económico.

1.c. Junta Arbitral

El Concierto determina su composición, funciones y acuerdos (artículos 65, 66 y 67).

Los tres integrantes de la Junta Arbitral serán designados entre expertos de reconocido prestigio con más de quince años de ejercicio profesional en materia tributaria o hacendística. Su nombramiento se formalizará por el Ministro de Hacienda y el Consejero de Hacienda y Finanzas para un periodo de seis años.

La Junta Arbitral tiene atribuidas las siguientes funciones:

a) Resolver los conflictos que se planteen entre la Administración del Estado y las Diputaciones Forales o entre éstas y la Administración de cualquier otra Comunidad Autónoma, en relación con la aplicación de los puntos de conexión de los tributos concertados y la

zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Eskumen-gatazkarik sortzen bada, auziko Administrazioek interesatuei jakinaraziko diete; horrek eten egingo du preskripzio-epea, eta hortik aurrera Administrazio horiek ez dute inongo jarduerarik egingo. Gatazkak ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan, interesatuei entzun egingo zaie.

Halaber, Eskumenak direla-eta gatazkaren bat sortzen denean, harik eta hura ebatzi arte, gatazka horren xede diren zergadunak zergapetzen zituen Administrazioak bere eskumenaren mende atxikiko ditu zergadunok; nolana ere, Arbitraje Batzordeak erabakitakoa ikusita, tributuen arloko zuzenketak eta konpentsazioak egin ahal izango dira, tributuen arloko foru berria betearazi behar den egunera arteko atzeraeraginarekin.

Arbitraje Batzordeak indarreko zuzenbide-arauak betez ebatziko ditu espedienteetako auzi guztiak, exekuzio-formulak barne, auzi horiek gatazkako alderdiek edo interesatuek aurkeztu dituzten aintzat hartu gabe; eta ebazpenetan ekonomia-, arintasun- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituko die. Arbitraje Batzorde horrek hartutako erabakiak betearazpen-indarra badute ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoak baino ezingo dira jarri horien aurka, Auzitegi Goreneko jurisdikzio horretako salan.

Ekonomia Itunaren eta lotura-puntuen aplikazioaren interpretazioaren eta aplikazioaren ondorioz sortzen diren gatazkak eta desadostasunak ebaztea ahalbidetuko duen prozedura adosteko asmoz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, 2007ko uztailaren 30eko akordioaren bitartez, prozedura horren

determinación de la proporción correspondiente a cada Administración en los supuestos de tributación conjunta por el Impuesto sobre Sociedades o por el Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Conocer de los conflictos que surjan entre las Administraciones interesadas como consecuencia de la interpretación y aplicación del Concierto Económico a casos concretos concernientes a relaciones tributarias individuales.

c) Resolver las discrepancias que puedan producirse respecto a la domiciliación de los contribuyentes.

Cuando se suscite el conflicto de competencias, las Administraciones afectadas lo notificarán a los interesados, lo que determinará la interrupción de la prescripción y se abstendrán de cualquier actuación ulterior. Los conflictos serán resueltos por el procedimiento que reglamentariamente se establezca en el que se dará audiencia a los interesados.

Asimismo, hasta tanto sea resuelto el mismo, la Administración que viniera gravando a los contribuyentes en cuestión continuará sometiéndolos a su competencia, sin perjuicio de las rectificaciones y compensaciones tributarias que deban efectuarse entre las Administraciones, retrotraídas a la fecha desde la que proceda ejercer el nuevo fuero tributario, según el acuerdo de la Junta Arbitral.

La Junta Arbitral resolverá conforme a derecho, de acuerdo con los principios de economía, celeridad y eficacia todas las cuestiones que ofrezca el expediente, hayan sido o no planteadas por las partes o los interesados en el conflicto, incluidas las fórmulas de ejecución. Sus acuerdos, sin perjuicio de su carácter ejecutivo, serán únicamente susceptibles de recurso en vía contencioso-administrativa ante la Sala correspondiente del Tribunal Supremo.

Con objeto de acordar el procedimiento que permita resolver los conflictos y discrepancias que surjan como consecuencia de la interpretación y aplicación del Concierto Económico y de la aplicación de los puntos de conexión, la Comisión Mixta del Concierto Económico mediante acuerdo de 30 de julio de

edukia adostu zuen. Akordio hori, hain zuzen ere, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duenean, gauzatu zen.

Geroago, 2014ko urtarrilaren 16an, Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoak zenbait aldaketa onartu zuen. Aldaketak maiatzaren 9ko 335/2014 Errege Dekretuan jaso ziren.

Arbitraje Batzordearen funtzionamendu-, antolaketa- eta prozedura-arauak finkatzeaz gain, prozedura arautzen duten arauak ere finkatzen dira, honako arlo hauetan: hasiera, izapidetzea, ebazpena, jakinarazpena eta ebazpenen betearazpena, bai eta haien aurkaratzea ere.

2017ko uztailaren 19an, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Arbitraje Batzordearen prozedura berezi berriak ezarri zituen; prozedura horiek abenduaren 29ko 10/2017 Legean bildu ziren.

Hain zuzen ere, Arbitraje Batzordearen honako hiru prozedura berezi hauek ezarri ziren:

- honako kasu hauetan aplikatuko den prozedura laburra: konexio-puntuaren aplikazioaren inguruan egiten diren kontsultetan; lotutako eragiketetan parte hartzen duten entitate guztiak ikuskatzeko eskumena erakunde berak ez daukanean; eragiketa baten kalifikazioa zergadunaren egin duenaren aldean oso bestelakoa denean, ondorioz jasanarazpenerako mekanismoa ezarri den zeharkako zergen kuotak, jasandakoak edo jasanarazitakoak, aldatzen badira.
- ondorioak luzatzeko prozedura; horren bidez gatazkak konpondu ahal izango dira honako kasu hauetan: Arbitraje Batzordearen ebazpen batean ezarritako doktrina irmo bihurtuta egonik, auzia ebazteko doktrina hori finkatzeko erabili den arrazoi bera aplikatu daitekeenean.

2007 konsensuó su contenido que se vio materializado en el Real Decreto 1760/2007, de 28 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de la Junta Arbitral prevista en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Posteriormente, con fecha 16 de enero de 2014, la Comisión Mixta del Concierto Económico acordó diversas modificaciones, que se recogieron en el Real Decreto 335/2014, de 9 de mayo.

Además de fijar las normas de funcionamiento, organización y procedimiento de la Junta Arbitral, se fijan las normas reguladoras del procedimiento en lo referente a la iniciación, tramitación, resolución, notificación y ejecución de las resoluciones, así como a su impugnación.

Con fecha 19 de julio de 2017, la Comisión Mixta del Concierto Económico acordó nuevos procedimientos especiales de la Junta Arbitral, que se recogieron en la ley 10/2017, de 29 de diciembre.

Concretamente, se regulan tres procedimientos especiales de la Junta Arbitral:

- el procedimiento abreviado que se aplicará en las consultas que se planteen sobre la aplicación de los puntos de conexión y en los casos de operaciones vinculadas en las que las entidades involucradas se encuentran sometidas a distinta competencia inspectora, y en los casos de calificación de operaciones de manera diferente a como las haya declarado el contribuyente cuando ello implique una modificación de las cuotas soportadas o repercutidas en los impuestos indirectos en los que se haya establecido el mecanismo de la repercusión.
- un procedimiento de extensión de efectos, el cual habilita la posibilidad de resolver situaciones discrepantes en las que, existiendo doctrina previa dictada mediante resolución de la Junta Arbitral que haya adquirido firmeza, la cuestión litigiosa guarde identidad de razón con la que determinó dicha doctrina consolidada.

- betearazteko intzidentea, honako kasu hauetarako: Arbitraje Batzordeak ebazpena eman ondoren gatazkak bere hartan jarraitzen duenean, baina Batzordearen ebazpenaren interpretazioa eta betearazpena direla eta, gatazkan dauden administrazioek zalantzak edo kontrako iritziak dituztelako ebazpena betearazteko moduaren inguruan.

Azkenik, 2021eko uztailaren 29an, Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoak zenbait aldaketa onartu zuen. Aldaketak maiatzaren 24ko 392/2022 Errege Dekretuan jaso ziren. Horien irismena, funtsean, izaera teknikoa eta prozedurazkoa da. Era berean, irismen formal hutseko aldaketa batzuk sartu dira.

2. EUSKADIKO ERAKUNDEEN ARTEKO ZERGA ARLOKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

2.a Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

Maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zergapideen Elkar-egokitasuna, Erakidetasuna eta Lankidetasunari buruzkoak -gerora, 4/1998 Legeak zenbait aldaketa egin zizkion-, helburu hau zuen: lurralde historikoen zerga-eremuan jardutean erabili beharko dituzten irizpideak arautzea eta antolatzea.

Batetik, Autonomia Estatuaren 41.2.a) artikulua arautzen du lurralde historikoetako erakunde eskumendunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izan dutela beren lurraldean, Estatuako zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako Ekonomia Itunak berak jasotako arauak jarraituz eta Eusko Legebiltzarrak arlo horretan eman ditzakeen arauak betez.

Ekonomia Ituneko 2. artikulua arautzen du lurralde historikoen zerga-sistemaren oinarriko printzipioetako bat izango dela lurralde historikoetako erakundeek beren jarduna koordinatzea, harmonizazio fiskala

- y el incidente de ejecución, procede en aquellos casos en que, habiendo recaído resolución de la Junta Arbitral, sin embargo el conflicto permanece manifestándose ahora a propósito de la interpretación y ejecución de la referida decisión arbitral, en tanto en cuanto las administraciones en conflicto mantengan dudas o posiciones discrepantes sobre cómo ejecutar una resolución en un caso concreto.

Por último, con fecha 29 de julio de 2021, la Comisión Mixta del Concierto Económico acordó diversas modificaciones, que se recogieron en el Real Decreto 392/2022, de 24 de mayo. El alcance de las mismas es fundamentalmente de carácter técnico y procedimental. Asimismo, se han incorporado algunas modificaciones de alcance meramente formal.

2. COORDINACIÓN Y COLABORACIÓN ENTRE LAS INSTITUCIONES DEL PAÍS VASCO

2.a El Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi

La Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, posteriormente modificada por la Ley 4/1998, responde a la necesidad de dar cuerpo legal y articular los principios que en materias tributarias deben regir la actuación de las Instituciones de los Territorios Históricos.

Por un lado, el artículo 41.2.a) del Estatuto de Autonomía señala como las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario, atendiendo a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma.

Así mismo, el Concierto Económico en su artículo 2 establece como uno de los principios generales del sistema tributario de los Territorios Históricos la coordinación, armonización fiscal y colaboración entre las

lortzea eta lankidetzan jardutea; betiere, Eusko Legebiltzarrak propio horretarako emandako arauak beteta.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoen Foruzko Jardute-erakundeen arteko Harremani buruzko Legeak, Lurralde Historikoen Legea izenez ere ezagutzen denak, bere 14.3 artikuluan honako bi agindu hauek finkatzen ditu, gerora, sarri aipatuak. Batetik, foru-organo eskudunek, Ekonomia Itunak aitortzen dizkien ahalmen araugileak erabiltzean, modu uniforme arautu behar dituzte zergen funtsezko elementuak. Eta bestetik, Eusko Legebiltzarrak eman behar ditu lurralde historikoen arteko zerga-sistemaren harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetzazko garatzeko arauak.

3/1989ko Legeak zenbait neurri arautu ditu, lurralde historikoetako erakundeen eskumenak harmonizatzeko. Halaber, neurri horien bitartez, lurralde historikoetako zerga-sistemak ez uniformizatzen saiatu da. Lege horren artikuluek orokorrean zehazten dituzte zein gai harmoniza ditzakeen Eusko Legebiltzarrak; hau da, zein gaik eragin diezaiekeen zerga-tresnen funtsezko elementuei, gai horietan foru-erakundeek dituzten ahalmen araugileei erreparatua.

3/1989 Legeak Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoa ere eratu zuen. Organoaren eginkizuna Lurralde Historikoetako foru-aldundien arteko koordinazioa sustatzea da, tributuak eraginkortasunez arautzeko eta kudeatzeko.

2.a.1 Eraketa, eginkizunak eta antolaketa

Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoaren eratzeko, erakunde komun eta lurralde historikoen arteko harremanen harian sortutako beste organo batzuk eratzeko egitura paritaria erabili da. Ogasuneko eta Finantzetako sailburuak hiru ordezkari izendatzen ditu, eta horietako bat Organoko presidentea izango da. Halaber, foru-aldundiek ordezkari bana dute Organo horretan.

Instituciones de los Territorios Históricos según las normas que, a tal efecto, dicte el Parlamento Vasco.

La Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, recoge en su artículo 14.3 estos dos elementos. Por un lado, la necesidad de que las disposiciones que dicten los órganos forales competentes, en el ejercicio de la potestad normativa reconocida en el Concierto Económico, regulen de modo uniforme los elementos sustanciales de los distintos impuestos. Por otro, la previsión de que el Parlamento Vasco proceda al desarrollo de las normas de armonización fiscal, coordinación y colaboración entre los Territorios Históricos.

La Ley 3/1989 ha optado por abordar las medidas de carácter armonizador garantizando de forma respetuosa las competencias de las Instituciones de los Territorios Históricos, evitando que las medidas implicaran de hecho la uniformización de sus sistemas tributarios. El articulado de la Ley determina las materias que pueden ser objeto de armonización por parte del Parlamento Vasco, y que afectan a los elementos sustanciales de las figuras tributarias, en función de la diversa capacidad normativa que en cada una de las mismas ostentan las Instituciones Forales.

También, la Ley 3/1989 crea el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi. Su función es impulsar la coordinación entre las Diputaciones Forales de cada Territorio Histórico para lograr una mayor eficacia en la regulación y en la gestión tributaria.

2.a.1 Composición, funciones y organización

La composición del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi es un reflejo de la estructura paritaria que se repite en otros órganos de relación entre las Instituciones Comunes y los Territorios Históricos. Tres es el número de representantes nombrados a propuesta del Consejero de Hacienda, uno de los cuales será el Presidente. Asimismo, cada Diputación Foral nombrará un representante.

Horrez gain, tokiko zergei buruzko gaiak direnean, Zerga Koordinaziorako Organoan udalerrietako hiru ordezkari sartuko dira, lehendakariak izendatuak, ezarpen handieneko euskal udalerrien elkarteak proposatuta.

Maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak arautzen ditu Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoaren eginkizunak. Hauek dira eginkizunok:

- Foru-aldundiek zergen inguruan dituzten eskumenak egikaritzean, beren arteko koordinazioa eta lankidetzaz sustatzea, zergen kudeaketan eraginkortasun hobea lortze aldera.
- Harmonizagarriak diren arloei buruzko foru-xedapenen proiektuekin, izaera orokorrekoak, zerikusia dutenen inguruko txostenak egitea.
- Zerga-arloan Autonomia Erkidegoko erakundeek edo lurralde historikoetako foru-organoek eska diezazkieten txostenak egitea.
- Zergak lurralde bakar batean ordaintzen dituzten subjektu pasiboen edo atxikitzaileen errolda egitea.
- Ikuskaritza-plan bateratuak egin eta horien jarraipena egitea.
- Kontsulta lotesleei buruzko txostenak.
- Euskal Ogasunaren jarduerari buruzko Urteko Txostena argitaratzea, kudeaketari eta ikuskaritzari buruzko informazioa biltzen duena.
- Lege honek zein beste guztiek agintzen dizkietenak.

Eusko Jaurlaritzak emango dio Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoari azken horrek lan egiteko behar duen laguntza teknikoa eta administratiboa. Orain artean, Ogasun Saila izan da horren ardura izan duena.

2.a.2. 2022 ekitaldiko jarduerak

2022an 8 lan-bilera egin ziren, aurrez gairerrenda zehaztuta. Ondorengo hauek dira,

Adicionalmente, cuando se trate de asuntos relativos a tributos locales, se incorporarán al Órgano de Coordinación Tributaria tres representantes de los municipios designados por el lehendakari a propuesta de la asociación de municipios vascos de mayor implantación.

Las funciones del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se relacionan en la propia Ley 3/1989, de 30 de mayo, y son las siguientes:

- Impulsar la coordinación y colaboración entre las Diputaciones Forales en el ejercicio de sus competencias tributarias para lograr una mayor eficacia en la gestión tributaria.
- Emitir informes en relación con los proyectos de disposiciones forales de carácter general relativos a materias objeto de armonización.
- Emitir cuantos informes le sean solicitados por las Instituciones Comunes o por los Órganos Forales de los Territorios Históricos en materia tributaria.
- Registro de los sujetos pasivos o retenedores que centralicen el cumplimiento de sus obligaciones fiscales en un solo territorio.
- Elaboración y seguimiento de los planes conjuntos de inspección.
- Informes sobre Consultas Vinculantes.
- Publicar un Informe Anual Integrado de la actuación de la Hacienda Vasca donde se proporcione información relativa a la gestión e inspección.
- En general, las demás funciones que le encomienden las leyes.

El Gobierno Vasco debe procurar al Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi el apoyo técnico y administrativo necesario para el ejercicio de sus funciones. El Departamento de Hacienda ha venido siendo el encargado de asumir este cometido.

2.a.2. Actividades en el ejercicio 2022

Durante el ejercicio 2022 se convocaron 8 reuniones de trabajo en las que el Órgano de

besteak beste, EAEko Zerga-Koordinaziorako Organoak landutako gai nagusiak:

Lurralde Historikoetako tributu-araudia bateratzea.

EAEko tributu-politikako hainbat proiektutan parte hartu da; Foru Aldundiekin elkarlanean, hiru Lurralde Historikoetako tributu-sistemak harmonizatu eta koordinatu nahian.

Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoaren 8 bileretan, aurkeztutako foru arau-proiektuak aztertu eta irizpendu dira. Zehazki, 52 proiekturen edo arau-xedapenen berri eman da.

Estatuko zerga-legediaren egokitzapena.

Estatuko tributu-legedira egokitzea. Estatuko Administrazioak aitortutako aldaketei, Zergen Foru Araudia nola doitu den aztertzea, Araudi Komuneko itunpeko tributuei dagokienez, bereziki BEZari (Balio Erantsiaren gaineko zerga), Zerga Bereziei eta bestelako zeharkako zergei dagozkienak.

Zerga-kontsultei buruzko txostenak egitea

Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 14. artikulua betez, Foru Ogasunei aurkeztutako kontsulta lotesleei buruzko 8 txosten egin dira. Halaber, Ekonomia Itunaren 64.b artikulua agindutakoa betez, kontsultei erantzuteko proposamenak aztertu dira, Ekonomia Itunaren lotura-puntuak aplikatzeari buruzkoak.

Jakinarazpenak Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordera

Eragiketen bolumenaren proportzioa aldatzeko 72 eskabide izapidetu dira, Ekonomia Itunaren 29.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Jarduera espezifikoak

Gainera, gastu fiskalen aurrekontua egin da, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioi Aurrekontu eta Gastuen Idazkaritza Nagusiarekin elkarlana gauzatu da, BEZaren oinarri harmonizatua ezartzeko, Espainiako

Coordinación Tributaria de Euskadi abordó, entre otras, las siguientes cuestiones:

Armonización de la normativa tributaria de los Territorios Históricos.

Se ha participado en los proyectos de política tributaria de la CAPV, colaborando con las Diputaciones Forales y contribuyendo a la armonización y coordinación de los sistemas tributarios de los tres Territorios Históricos.

En las 8 sesiones del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se han analizado e informado los proyectos normativos tributarios presentados. En concreto, se han informado 52 proyectos o disposiciones normativas.

Adaptación de la legislación tributaria estatal.

Análisis de la adecuación de la normativa tributaria foral a las modificaciones adoptadas por la Administración del Estado en relación con tributos concertados de normativa común, en particular el IVA, los Impuestos Especiales y otros impuestos indirectos.

Realización de informes sobre consultas tributarias

A los efectos del artículo 14 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal se han emitido 8 informes sobre las consultas vinculantes presentadas a las Haciendas Forales. Así mismo, a efectos del artículo 64.b del Concierto Económico se han analizado las propuestas de contestación a consultas sobre la aplicación de los puntos de conexión del Concierto Económico.

Comunicaciones a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa

Se han tramitado 72 solicitudes de cambio de la proporción de volumen de operaciones de acuerdo con lo establecido con el artículo 29.2 del Concierto Económico.

Actuaciones específicas

Se elabora el correspondiente presupuesto de gastos fiscales y se colabora con la Secretaría General de Presupuestos y Gastos del Ministerio de Economía y Hacienda para la determinación de la base armonizada del IVA

Estatuak Europar Batasunaren aurrekontuari egin beharreko ekarpenari begira.

Erakundeen zenbait jardunekin elkarlanean aritu da eta horiek bultzatu dira, tributu-arloko koordinazioaren eta harmonizazioaren esparruan. Zerga Iruzuraren Aurkako Batzordearen (6 bilera egin zituen 2022an) parte-hartzea nabarmentzeko modukoa da. Batzorde hori Zerga Koordinaziorako Organoak egindako akordioaren bidez sortu zen, era berean, Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 26an egindako Ebazpenari erantzuteko egin zena. Ebazpen horren bidez, Zerga Iruzuraren aurkako 2022ko Plan Bateratua eratu zen, baita 2021 ekitaldiari dagokion Zerga Iruzurereko Urteko Txosten Integratua ere.

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin elkarlanean ECOFINeko lantaldeekin parte hartzen jarraitu da: D.4 zerga-kontuen lantaldea eta D.5 jokabide-kodearen lantaldea; foru-aldundiek ere parte hartu dute.

Argitalpenak

Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua egin da, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako 3/1989 Legearen 17. artikulua agindu bezala. Izan ere, artikulua horrek ezartzen duenez, Euskal Ogasunaren urteko txosten bateratua egitea da EAEko Zerga-Koordinazioko Organoaren eginkizunetako bat. Halaber, Gaceta Tributaria del País Vasco-Zergak aldizkariaren bi ale argitaratu dira.

2.b Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua

27/1983 Legeak (azaroaren 25ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremani buruzkoak) 2. artikuluan jasotzen du lankidetzaren eta elkartasun-printzipioetan oinarritutako direla harreman horiek, eta era berean jasotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek eraginkortasun- eta koordinazio-printzipioekin bat eginez jardungo dutela beren eskumenen barruan.

a los efectos de la contribución del Estado español al Presupuesto de la Unión Europea.

Se ha colaborado y se han impulsado diversas actuaciones de carácter institucional en el marco de la coordinación y armonización en materia tributaria. Destaca la participación en la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal (6 reuniones en 2022), creada mediante acuerdo del Órgano de Coordinación Tributaria en respuesta a una Resolución del Parlamento Vasco de 26 de septiembre de 2013, en la que se han elaborado el Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal 2022 y el Informe Anual Integrado del Fraude Fiscal correspondiente a 2021.

En colaboración con la Delegación de Euskadi para la Unión Europea se participa en los grupos de trabajo del ECOFIN: D.4 grupo de cuestiones fiscales y D.5 grupo código de conducta y se realiza la gestión documental, dando acceso también a las Diputaciones Forales.

Publicaciones

Se elabora el correspondiente Informe Anual Integrado de la Hacienda Vasca previsto en el artículo 17 de la Ley 3/1989 de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, que establece como una de las funciones a desempeñar por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, la publicación de un informe de la Hacienda Vasca con periodicidad anual y con carácter integrado. Así mismo, se publicaron dos nuevos números de la Gaceta Tributaria del País Vasco-Zergak.

2.b. El Consejo Vasco de Finanzas Públicas

La Ley 27/1983 de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, recoge en su artículo 2 que dichas relaciones se basarán en los principios de colaboración y solidaridad, así como que, en el ejercicio de sus respectivas competencias, las Administraciones del País Vasco actuarán de acuerdo con los principios de eficacia y coordinación.

Zehazki, 27/1983 Legearen 14.2 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrarekin koordinatuta garatuko da lurralde historikoen eta horien sektore publikoaren jardura finantzarioa.

Koordinazio hori gauzatze aldera, legeak Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua sortzen du (28. artikulua), eta Kontseiluaren eginkizunak, eraketa eta funtzionamendu-araubidea zehazten ditu.

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren eraketa paritarioa da, eta sei kidek osatzen dute. Horietako hiru Gobernuak izendatzen ditu (zeinetarik bat presidentea izango den), eta foru-aldundiek izendatzen dituzte beste hirurak, bana. Eusko Jaurlaritzako karrerako edo enpleguko funtzionario publiko bat izango da idazkaria, baina Kontseiluaren erabaketan ez du ez hitzik, ez botorik edukiko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea onartu ondoren, udalerrietako hiru ordezkari sartu ziren Herri-Dirubideen Euskal Kontseilura, lurralde historiko bakoitzetik bat. Udaleko ordezkariak eskubide osoko kideak dira, eta hitza eta botoa dauzkate Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 115., 116., 117.3, 117.5 eta 118. artikuluetan jasotzen diren gaiak ukitzen direnean; gainerako gaietan, ordea, hitza bakarrik dute.

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluari esleitutako eginkizunen artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

a) Kupoa deskontatu ostean Ekonomia Ituna kudeatzearen ondorioz eskuratzen diren baliabideen banaketa zehaztea, legean jasotzen diren printzipioekin bat etorriz, eta, ondorioz, lurralde historikoek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrari egin behar dizkioten ekarpenak zehaztea (Autonomia Estatutuaren 42.a) artikuluan aurreikusten dira ekarpen horiek).

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren ekonomia-, finantzaketa- eta aurrekontu-jarduerarekin zerikusia daukan edozein gairi buruzko proposamenak aztertzea, eta Gobernuari eta foru-aldundiei

En particular, el artículo 14.2 de la citada ley 27/1983 dispone que la actividad financiera de los Territorios Históricos y de su sector público, se ejercerá en coordinación con la Hacienda General del País Vasco.

Para hacer efectiva dicha coordinación, la ley crea el Consejo Vasco de Finanzas Públicas (artículo 28), definiendo sus funciones, composición y régimen de funcionamiento.

La composición del Consejo Vasco de Finanzas es paritaria, estando integrado por seis miembros, tres designados por el Gobierno, uno de los cuales será el Presidente, y los otros tres, por las Diputaciones Forales a razón de uno por cada una de ellas. Actuará de Secretario un funcionario público, de carrera o de empleo del Gobierno Vasco, que no tendrá ni voz ni voto en las deliberaciones del Consejo.

Tras la aprobación de la ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, se incorporan al Consejo Vasco de Finanzas Públicas tres representantes de los municipios, uno por cada territorio histórico. Los representantes municipales asistirán al mismo como miembros de pleno derecho, con voz y voto, cuando se traten asuntos que afecten a las materias previstas en los artículos 115, 116, 117.3, 117.5 y 118 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi, y solo con voz en el resto de las materias.

Entre las funciones atribuidas al Consejo Vasco de Finanzas Públicas podemos destacar:

a) Determinar, con arreglo a los principios contenidos la ley, la distribución de los recursos derivados de la gestión del Concierto Económico, una vez descontado el Cupo, y en consecuencia, las aportaciones de los Territorios Históricos a la Hacienda General de la Comunidad Autónoma, previstas en el artículo 42.a) del Estatuto de Autonomía.

b) El estudio y formulación de propuestas al Gobierno y a las Diputaciones Forales sobre cualquier materia relacionada con la actividad económica, financiera y presupuestaria del

proposamen horiek egitea, Kontseiluaren ustez gaiok jarduketa koordinatua behar badute.

Funtzionamenduari dagokionez, erabakiak hartzeko araubidea nabarmentzen da. Hala, oro har, erabaki bat hartzeko kideen gehiengo osoa behar da, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 115., 116. eta 117.3 artikuluetan jasotzen diren gaien gaineko erabakiak hartzeko, gehiengo horretan gutxienez autonomia-, foru- eta udal-eremu bakoitzeko ordezkari bana egotea eskatzen da, gehigarri gisa.

sector público vasco que, a juicio del Consejo, precise de una actuación coordinada.

En relación a su funcionamiento, destaca el régimen de adopción de acuerdos. Así, con carácter general es necesaria mayoría absoluta de sus miembros, exigiéndose adicionalmente para adoptar acuerdos sobre las materias a las que se refieren los artículos 115 y 116, 117.3 de la ley de entidades locales de Euskadi, que dicha mayoría incluya al menos una persona representante de cada ámbito autonómico, foral y municipal.